



2022/2023 denboraldia

42. ZIRKULARRA

UDABERRIKO FUTBOL 8KO OHOREZKO INFANTIL NESKEN TXAPELKETA

1. PARTE HARTUKO DUTEN KLUBAK

FUTBOL 8

GRUPO 1 TALDEA	
1	BERGARA (12)
2	TOURING (13)
3	MARTUTENE (15)
4	UROLA (14)
5	ZUMAIAKO (12)
6	Atsedena

2. LEHIAKETA SISTEMA

Futbol 8ko Udaberriko Txapelketa 5 taldek osatzen dute, multzo bakar batean. Puntuka eta itzuli bakarrera jokatu da (5 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

Fase hau amaitu ondoren, sailkapenenean lehenengo postuan gelditzen den taldea izango da txapelketako txapelduna.

3. ADINAK

2009 eta 2010 urteetan jaiotako jokalariek har dezakete parte txapelketa honetan.



4. LIZENTZIAK

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek dagokion eskola-lizentzia izango dute. Lizentzia horrek bi erakundeen logotipoak izango ditu, eta lehiaketa hasi aurretik, fisikoki tramiantuko dira federazioaren egoitzan, Kirol Lizentziak sistemaren bidez, osasun azterketa eta mutualitatean alta emanda daudela egiaztatu ondoren.

Gehienez 16 lizentzia eduki ahal izango dira. Halere, denboraldian zehar altak eta bajak konpentsatu daitezke.

Asistentzia-estaldura:

Lehiaketa eskolarra izan arren, beharrezkoa da Espainiako futbolarien gizarte-aurreikuspeneko mutualitatean afiliatzea.

Azterketa medikoak:

Lizentzia tramitatu aurretik, kirolariak futboleko aritzeko duen gaitasuna egiaztatu beharko da.

5. JOKALARI KOPURUA ZELAI JOKOAN

- Gehienez: 8 jokalarik
- Gutxienez: 6 jokalarik

Gutxienezko kopurua lortzen ez bada, behar diren jokalariek lortu ez dituen taldeari partida galdutzat emango zaio, naiz eta partida jokatu.

6. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidek 60 minutuko iraupena izango dute, 20 minutuko 3 zatiekin, eta azken zatian aldaketak libreak izango dira. 20 minutuko bigarren zatian, lehengo zatian parte hartu ez duten jokalariek parte hartu beharko dute. **Arau hori betetzen ez bada eta aurkariak salatzen badu, partida galdutzat emango da.**

7. DEIALDIA

Batzen Nagusian heldutako akordioaren arabera, **taldea osatzen duten jokalarien %80k deialdian eta partidaren bertan egon beharko du (gehienez 18 jokalarik).** **Arau hau betetzen ez bada eta aurkariak taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**



8. BALOIA

Baloia 4 zenbakikoa izango da eta ez da onartuko areto futboleko baloia.

9. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

10. ZELAIAREN ETA ATEEN NEURRIAK

Zabalean jokatu da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den gutxi gorabehera ondoko neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera duen angeluzuzena izango da. Ateak 6(langeta) x 2(zutoina) izango dira. Neurri hauek kontutan izanda, jokalekua, salbuespen bezala, zelaiaren luzera aprobetxatuz marraztu daiteke.

11. PENALTI EREMUA

Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko poste bakoitzetik 9 metrotara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko linearekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroa egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

12. PENALTI PUNTUA

9 metrotara eta erdian markatuko da penalti puntua.


13. ATE EREMUA

Penalti eremua bezala, bakarrik ateko poste bakoitzetik 3 metrotara.



14. JOKOZ KANPOKO EREMEUA

Ateko marrantik 13 metrotara ezarriko da.



15. BESTE ARAUAK

Beste arauak, futbol hamaikako lehiaketan dauden berdinak izango dira.

16. EPAILEAK

Txapelketa honek Gipuzkoako Epailen Batzordeak jarritako epaileak izango ditu.

17. OHOREZKO INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.



- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Azterketa medikuaren ziurtagiria aurkeztea.
- Mutualitatean afiliatuta egotea.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea

18.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina **infantilen taldean lerrokatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.**

19. DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAN zehaztutakoarekin bat etorritz, diziplina-eskubidea honela gauzatzen da:

- a) Lehenik eta behin, lehiaketen antolaketaz arduratzen den kirol-federazioko diziplina-batzordeari.
- b) Bigarrenik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari; bere erabakiak administrazio-bidearekin amaituko du, eta aurkako errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, aplikatu beharreko jurisdikzio-arauei arabera.

20. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.



Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalatuta, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko martxoa

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General

